



Baztango Udala

BANDOA / BANDO

Baztanen autokarabanak eta etxebizitza-ibilgailuak aparkatzea eta gaua pasatzea arautzen dituen udal ordenantza onartu nahi du Udal honek

Herritarrek erregelamendu-mailako arauak egiteko prozeduran parte hartuko dutela bermatzeko, eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoa betez, alde aurreko kontsulta publiko bat egiten da herritarren eta eragin diezaieketen erakunde ordezkarien iritzia jasotzeko.

Ondorioz, Baztanen autokarabanak eta etxebizitza-ibilgailuak aparkatzea eta gaua pasatzea arautzen dituen udal ordenantza egin aurretik, jendaurrean ondokoa jarri da:

MEMORIA

a) Aurrekariak:

Baztango haranak gero eta turista gehiago jasotzen ditu, eta autokarabanetan etortzen direnak moduetako bat da. Autokarabanetako erabiltzaileen artean eta haraneko bizilagunen artean arazoak sortzen ari duena, aparkatzeko edota kanpatzeko tokirik ez dagoelako.

b) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak:

- Natura-baliabideak eta guneak zaintzea
- Pertsonen segurtasuna
- Aparkaleku publikoen erabilera erabiltzaile guztien artean

c) Onarpenaren premia eta egokitasuna:

Beharra arazo baten ondorioz sortu da, autokarabanak eta etxebizitza ibilgailuak erabiltzen dituzten bisitarien kopuruak gora egin duelako haranean, eta, ondorioz, arautu beharra dago.

d) Ordenantzaren helburuak:

Autokarabanak eta etxebizitza-ibilgailuak aparkatzea arautzea kanpaldi finkoetarako edo ibiltarietarako, Baztango udal mugapenaren barnean, bertako natura baliabide eta espazioak zaindu eta pertsonen segurtasuna eta aparkalekuetan behar den errotazioa eta banaketa zuzena bermatzeko asmoz eremu publikoen erabiltzaile guztien artean.

e) Ahalbide alternatibo erregulatuak eta ez-erregulatuak:

Seinaleak soilik.

Ediktu hau udalaren webgunean argitaratu eta hurrengo hogeita egunetan, hala nahi duten herritarrek, erakundeek eta elkarteek beren iritzia helarazi ahal izanen dituzte posta elektronikoko honen bidez: ekarpenak@baztan.eus

Baztanen, 2020ko abuztuaren 20an

Alkatetza

Este Ayuntamiento pretende aprobar la Ordenanza municipal reguladora estacionamiento y pernocta de auto caravanas y vehículos vivienda en Baztan.

Con el objetivo de garantizar la participación de la ciudadanía en el procedimiento de elaboración de normas con rango reglamentario, y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas con carácter previo a la elaboración de la Ordenanza, se sustancia una consulta pública previa para recabar la opinión de la ciudadanía y de las organizaciones más representativas que potencialmente se puedan ver afectados por la misma.

En consecuencia, se somete a consulta pública previa a la elaboración de la Ordenanza municipal reguladora estacionamiento y pernocta de auto caravanas y vehículos vivienda en Baztan, la siguiente

MEMORIA

a) Antecedentes:

El valle de Baztan recibe cada vez más turistas y una de las formas en las que acuden al Valle es en auto caravanas lo que está generando diferentes problemas entre las personas usuarias y el vecindario, bien por la falta de espacios para aparcar y/o acampar.

b) Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa:

- preservar los recursos y espacios naturales
- la Seguridad de las personas
- El uso de los aparcamientos públicos entre todas las personas usuarias

c) Necesidad y oportunidad de su aprobación:

La necesidad deriva de la existencia de un problema generado por el aumento de visitantes usando auto caravanas y vehículos vivienda en el Valle lo que en consecuencia genera la necesidad de regulación.

d) Objetivos de la ordenanza:

Regular el estacionamiento de auto caravanas y vehículos vivienda para acampadas temporales o itinerantes dentro del término municipal de Baztan, con la finalidad de preservar los recursos y espacios naturales del mismo y garantizar la seguridad de las personas y la debida rotación y distribución equitativa de los aparcamientos públicos entre todos los usuarios y usuarias

e) Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias:

Solo señalización.

Durante el plazo de los veinte días siguientes a la publicación del presente Edicto en el sitio web municipal, la ciudadanía, organizaciones y asociaciones que así lo consideren, podrán hacer llegar sus opiniones a través del siguiente buzón de correo electrónico: ekarpenak@baztan.eus

En Baztan a 20 de agosto de 2020

La Alcaldía

